


URAREN OSOKO ZIKLOA (1)



Ondoko marrazkia jarraituz, esan dezakegu


HORNİKETAren barne sartzen direla:

- *Ur hartzea: urtegi, lurpeko hartuneak.*
- *Ur horren tratamendua.*
- *Tratatutako uraren biltegia.*
- *Banaketa erabiltzaileei: etxebizitzak, industriak, ikastetxeak, ...*

Eta **SANEAMENDUA**ren barne:

- *Hondakin-uren bilketa, hau da, estolderia-sarea.*
- *Ur horien arazketa.*
- *Isurketa ibaira edo itsasora.*

URAREN OSOKO ZIKLOA (2)



___ / Urak
deposituetara
garraiatzea

Ura iturburu eta lurrazaleko ibaietatik dator, batez ere. Lurrazpiko ibaietatik ere hartzen da ura.

___ / Urak araztea

Ura urtegietan jasotzen da, urei eusten dien horma bat eraikita.

___ / Urak tratatzea

Ur naturala edo landugabea edateko ur bihurtzen da. Prozesua edateko uren araztegietan (E.U.A.) egiten da. Urak mikroorganismo eta substantzia toxikorik gabe egon behar du, usain, zapore edo kolorerik ez du eduki behar.

___ / Urak
erabiltzaileei banatzea

Ura araztu eta, ondoren, depositu batera garraiatzen da, eta bertan, gizakiok kontsumitzen dugun ura jasotzen da.

___ / Urak jasotzea

Banaketa sarea hodi multzo bat da eta hortik giza kontsumorako ura bideratzen da depositutik erabiltzaileen kaniletaraino.

___ / Urak hartzea

Etxe, denda eta industrietatik datozen ur zikinak kolektoreetara heltzen dira, estolderia sarearen bidez.

___ / Urak ibaira edo
itsasora isurtzea

Ur zikinak ur zikinen araztegietara heltzen dira kolektorearen bidez, eta hor uren kalitatea berreskuratzen da. Arazteak ibaietan bizitza egotea ahalbidetzen du.

___ / Urak U.H.A.-ra
garraiatzea

Araztutako urak ibaira edo itsasora itzultzen dira, jatorrian zuten antzeko egoeran.